

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2021 000002392

Espediente-zenbakia: 2021/KON_NE_G0002

01/2020

Xedea

**Madalen egunerako kainoberak hornitzeko kontratazioa. Exp. KON_NE_G0002/2021
Aurrekariak**

Lehenengoa: 2021-06-11ko dataz Kultura sailak KON_NE_G0002/2021 kontratazio espedienteari hasiera emon eutsen.

Bigarrena: Kontratazio honen xedea, Madalen egunean Bermeoko Udaleko lehentasunak, zeremonia eta protokoloa arautzen dituen udal ordenantza kontuan izanda, Iزارo uharte gainean Bermeoko Bandera eta Ikurrina kanaberatan jarri behar direnez, kanaberen hornidura kontratatzea da.

Espedientean egiaztatzen dan moduan, kontratua ezin da loteetan banatu eta bere osotasunean kaleratzen da, eta xedearen arabera horniduren administrazio-kontratua da.

Higarrena: Aukeratutako prozedurea negoziatua publizidade barik izan da, prozedura irekia hutsik deklaratu ondoren (KON_IOS_0014/2020). Hau da, SPKLaren 169.a).1º artikuluko kasuaren aurrean gagozalako.

Kontratazio hau hilabetean bete behar da eta gehienez 2021eko uztailaren 22a baino lehen. Hornidura honekin udalaren bi urteko beharrianak asetzea aurrakusi da. Danetara, lau kainabera hornitu bera dira.

Kontratu honen balio estimatua 1.000,00 eurokoa da, BEZa kanpo. Ez dira aurrakusten kontratu luzapenik ezta kontratuaren aldaerak ere.

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 1.210,00€ euroko da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

Laugarrena: 2021-06-23ko datan, Udaleko Idazkaritzak aldeko txosten juridikoa emon dau.

Argudioak

1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E500071E6200F0M5L9L4D7C4

Sinadurea eta data

MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-EKONOMIA ETA OGASUN ZINEGOTZIA - 30/06/2021
CN=tza.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/06/2021
10:37:21

EXPEDIENTE ::
2021KON_NE_G0002
Data: 10/06/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500071E6200F0M5L9L4D7C4



Lehenengoa: Kontsignazino nahikoa dago gastu honetarako. RC 2021/0498

Bigarrena: Kontratu administratibo baten aurrean gagoz, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 25. artikulua araberera.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 2. Xedapen gehigarriaren arabera Toki Entitateetako Kontratuzorako Arau espezifikoak aplikatuko dira.

Laugarrena: Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 159.6 artikuluan xedatuta dago horniduretarako prozedura ireki oso sinplifikatua erabili daitekeela 35.000,00 €-rainokoak ---- 80.000,00 €-rainokoak diranean, BEZ BARIK.

Bosgarrena: 2021eko ekainaren 29an, udal kontuhartzaileak ikuskatze mugatuaren aldeko txostena igorri dau.

Seigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, erabagi hartzeko ahalmena alkateari jagoko. Baina 2021eko martxoaren 11ko 702 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Zinegotzi Delegatuengan dago delegatuta.

Erabagia

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dau Ekonomiako Zinegotzi Delegatuak:

LEHENENGOA: 1.210,00 euroko gastua baimentzea hornidura kontratua esleitzeko eta, indarreango udal aurrekontuaren **00400-33810-226.99.25** partidan zorduntzea.

BIGARRENA: Baldintza Plegu Tekniko Partikularrak, Administratibo Partikularrak eta horreen eranskinak onartzea.

HIRUGARRENA: Deialdia zabaltzea.

LAUGARRENA: Ekonomia sailari erabagi hau jakinarazotea.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Dekretu hau alkateak eskuordetzea emanda sinatuko da

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .





Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E500071E6200F0M5L9L4D7C4

Sinadurea eta data

MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-EKONOMIA ETA OGASUN ZINEGOTZIA - 30/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/06/2021
10:37:21

EXPEDIENTE ::

2021KON_NE_G0002

Datea: 10/06/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

